



2021EKO UZTAILAREN 14AN UDALBATZAK IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

BILDUTAKOAK:

ALKATEA: Unai Elkoro Oianguren.

BERTARATUAK: Xabier Ochoa Muñoz, Ainhoa Cabero Garcia, Koldo Zubillaga Beltran de Heredia, Alex Dietmar Walter Seiler, zeina gai zerrendako bosgarren gaia bozkatzerakoan agertzen den, Mikel Uribeetxebarria Aldalur, Ion Albizu Gonzalez, Jasone Garzia-Etxabe Lopez eta Gorka Gabilondo Jauregi.

EZ BERTARATUAK:

KONTUHARTZAILEA: Begoña Arenaza Bengoa

IDAZKARIA: Fco. Javier Mendizabal Garate

Aretxabaletan, 2021eko uztailaren 14an, arratsaldeko 18:30ak direnean, goian aipatutako jaun-andreak elkartu dira Udaletxeko Udalbatzar Aretoan, bilkura egin eta deialdiaren aztergai zerrendan zehaztutako gaiet buruz hitz egitearren.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:


1.- Aurreko bilkuretako aktak onartzea.

Koldo Zubillagak aipatu du aktaren batean etorritako zinegotzien artean Pilar Leanizbarrutia . Mikel Uribeetxeberria zinegotziak gehitu du maiatzako aktan behintzat horrela dela eta Koldo Zubillagak erantsi du ekainekoan uste duela Pilar Leanizbarrutia jasotzen dela baina ez Fco. Javier Mar. Etorritako zinegotzien artean Pilar Leanizbarrutia zinegotzi ohia ageri den aktetan akats hori zuzendu egingo da eta etorritakoen artean gehitu bere ordez zinegotzi kargua hartu zuen Fco. Javier Mar zinegotzia.

2.-2021KKOO0001 espedientea. Kontu orokorra onartzea.

Begoña Arenaza kontu-hartzaileak gogoratu du martxoan likidazioa onartu zela eta apirilaren 28an egindako kontuen batzorde berezian 2020ri dagokion kontu orokorraren aldeko txostena egin zela. Tramitazioarekin jarraituz, hamabost egunez jendaurrean egon behar da boletinean argitaratu ostean eta ez da bada erreklamaziorik 2020ko kontu orokorra onartu leike, udalbatzak onartu behar du. Horrekin batera doa likidazioa eta hainbat dokumentazio: balantze guztia, memoria...., espedientean sartuta daude. Udalbatzak onartu ondoren informazio guztia bidali behar da tribunalera eta udalak uztaileak 31 baino lehen onartu behar du. Informazio gehiago nahi duenak kontuhartzailetzara jo dezake edo espedientea begiratu dezake. Jarraian, bozketa egiten da eta aho batez zera erabakitzen da:

BAT: Onartzea 2020ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra osatzen duten kontuak eta egoerak, bai eta horien eranskinak ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuarekin bat etorri aurkeztua. Dekretu horren bidez, Gipuzkoako toki-erakundeen

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM



kontabilitate-esparru arautzailea onartu zen, eta erakundearen beraren eta erakunde hauen kontuek osatzen dute:

- Urats-gain Zaharren Egoitza fundazio publikoa

BI: Behin Kontu Orokorra onartuta, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea indarrean dagoen araudiak ezartzen duen moduan eta dokumentazioarekin.

3.-2021KZZA0002 espedientea. Aurreko urteetako kobratzeko eskubideen bajak

Alkateak aipatu du beti egoten direla urteetan kobratzen saiatu garen kopuru batzuk, Diputazioa saiatzen da kobratzen ejekutibatik eta ezin badu kobratu bidaltzen digu kobragaitzak direla esanez. Baja eman behar direnen zerrenda eman zaigu eta ikusten da ezin direla kobratu. Kontu-hartzaileak esan du batzuk preskribatu egiten direla eta beste batzuk kobraezinak direla eta ez du zentsurik mantentzea kobratu ezin diren eskubide batzuk. Baja eman behar zaio 61.000 euroko zenbatekoari; gehienak jarduera ekonomikoen gaineko zergarenak dira eta honen gestioa Foru Aldundiak ematen du. Honek, hileroko zerrenda batzuk bidaltzen ditu eta zerrendetan kobraezinak daudela ikusten badute baja eman behar zaie; hala ere, kobratu bagenitu ondo, baina zaila da. Jarraian bozketa egiten da eta aho batez Ogasun batzordearen honako diktamena onartzen da:

“Udalaren kontuhartzaileak itxitako ekitaldietan kobratzeke dauden eskubide aitortuak baliogabetzeko erabaki-proposamena egin du, espedientean agertzen diren arrazoiengatik. Udal Idazkariak proposamenaren gaineko txostena egin du. Udal Kontu-hartzaileak ikuskatu du proposamena.


Udal kontabilitatean itxitako ekitaldietako eskubideen bajak Udalbatzaren Kontu Orokorrei eragiten dienez, udalbatzak osoko bilkuran onartu dituzenez, Udalbatzaren osoko bilkurak onartu behar du itxitako ekitaldietako eskubideei baja emateko espediente kolektiboa.

Idazkaritzaren eta kontuhartzailearen txostenekin bat etorriz, eta eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Ogasuneko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman du, eta Udalbatzari aurkeztu dio hurrengo

ERABAKI PROPOSAMENA

LEHENENGOA: Itxitako ekitaldietan kobratzeke dauden eskubide aitortuak baliogabetzea onartzea. Eskubide horien zenbatekoa, guztira, 70.083,67 €da, aurrekarietan ageri den xehetasunaren arabera.

<u>AITOR.ESK.</u>	<u>KONTZEP.</u>	<u>ERREZIBOA</u>	<u>HIRUGARR.</u>	<u>ZENBATEKOA</u>	<u>DEUSESTA.</u>
<u>ARRAZOIA</u>					
R-1078/2013	IAE	33A028498 720W	ALURI GAS SL	12.223,23€	KREDITU KOBRAEZINA
R-1406/2014	IAE	34A028498 720V	ALURI GAS SL	12.223,23€	KREDITU KOBRAEZINA.
R-1327/2015	IAE	35A028498 720U	ALURI GAS SL	12.223,23€	KREDITU KOBRAEZINA
R-1479/2016	IAE	36A000294 420H	ALUMIN.PREC SL	5.710,80€	PRESKRIPZIOA
R-1479/2016	IAE	36A028498 720T	ALURI GAS SL	12.223,23€	KREDITU KOBRAEZINA
R-1479/2016	IAE	36A030119 020N	ARRITZEKO	410,54€	PRESKRIPZIOA
R-1479/2016	IAE	36A035661 920I	EDIC.ERIXA SL	419,61€	PRESKRIPZIOA
R-1479/2016	IAE	36A037169 920X	EROSTEGI SL	356,40€	PRESKRIPZIOA
R-1479/2016	IAE	36A023536 420N	IÑIGUEZ HER.CON	383,17€	PRESKRIPZIOA
R-1479/2016	IAE	36A036265 4205	ORYPEMA	383,17€	PRESKRIPZIOA
R-1479/2016	IAE	36A010514 220F	REINEX SDAD.C.	150,55€	PRESKRIPZIOA
R-1479/2016	IAE	36A008463 820A	RUBBER LAN SCL	231€	PRESKRIPZIOA
R-1317/2019	DIRULAGUNTZA		GFA	6.906,35	ESK. DESEGOK.
R-185/2020	IMPTO.OBRAS		ARCAUZ ORTIZ.	261,10€	ESK. DESEGOK.
R-515/2020	TASA INF.URB.		LARREATEGUI M.	33,35€	ESK. DESEGOK.
R-1200/2020	2020/4.ZABORB OSTAL		OSTALARIAK	2174,42€	ESK. DESEGOK
R-420/2020	IIVTNU		JOKIN AYASTUY	1316,35€	ESK. DESEGOK

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM



R-444/2020	IIVTNU	MADDI ZUBILL.	498,51€	ESK. DESEGOK
R-1039/2020	IIVTNU	ZUBIZAR.ARAN.	1222,80€	ESK. DESEGOK
R-951/2020	LIQ.OHZ	ASOC.VEC.LIZS	732,63€	ESK. DESEGOK

BIGARRENA: Udal kontabilitatean eta diru-bilketa kontuetan baja ematea.”

4.-2021KBES0021 espedientea. Konpromiso kredituen aldaketa

Xabier Ochoak jakinarazi du Santakurtz kaleko PEASaren obren zuzendaritza hutsik geratu zela. Horren zergatia jakiten saiatu ostean ikusi da alde batetik diru gutxi zela duen lanerako eta dedikaziorako eta beste aldetik une honetan ingeniariartzak lanez gainezka daudelako. Horrexegatik, lizitazio berrian kopurua piska bat igotzea pentsatu da. Alkateak gehitu du kopurua igotzen denez eta aurtengoa exekutatzeko ez denez, aurtengo eta datorren urteko aurrekontuan eragiten dion gaia izanik osoko bilkurak onartu beharreko aldaketa dela.

Ion Albizuk galdetzen du txostenean zehazten den zenbat den urtero. Aurrekoan bai esaten zen 60-40 izango zela. Kontu-hartzaileak erantzun dio igotzen dena datorren urteko partida dela, aurtengoan uste da nahikoa egongo dela, apur bat atzeratu delako obra. Aurtengo partida ez da ikutzen eta datorren urtekoan 37.474 euro igotzen da; orduan, datorren urteari begirako konpromisoa da: guztira, 138.000 inguru izango ziren. Ion Albizuk esan du ados daudela, baina aurreko osoko bilkuretan esan bezala, hasierako desadostasunak direla eta, abstenitu egingo direla jakinarazi du. Jarraian bozketa egiten da eta EAJ/PNVko lau zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko lau zinegotzien abstentzioarekin Ogasun batzordearen honako diktamena onartzen da:

“2021eko ekitaldirako onartutako aurrekontuan “ARETXABALETAKO SANTAKURTZ KALEKO OBREN SEGURTASUN ETA OSASUN-LANEN ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA ETA KOORDINAZIOA” gastua egiteko aurrekontu-esleipena jasotzen da. Urte anitzeko gastua denez, gastua finantzatzeko behar den kreditua bi aurrekontu sailetan banatuta dago, aurreko ekitaldian eta hurrengo urteko ekitaldirako.

Aretxabaletako Udalak lizitazioa prozedura irekiaren bidez abiarazi zuen. Eskaintzak aurkezteko epea igarota lizitatzailerik aurkeztu ez denez, lizitazioa hutsik geratu zen. (Alkatetza Dekretua 2021eko ekainaren 15ean)

Hirigintza Sailak, lana egiteko enpresa espezializatu bat kontratatu behar denez, berriro aztertu du lizitazio-espedientea, eta lizitatzailerik ez egoteak lizitazio-prezioarekin zerikusia izan dezakeela iradoki du.


“ARETXABALETAKO SANTAKURTZ KALEKO OBRETAKO SEGURTASUN ETA OSASUN LANEN ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA ETA SEGURTASUN ETA KOORDINAZIO ZERBITZUA” berriz lizitatu beharko da, 138.069,13 euroko hasierako lizitazio-prezioan.

Gastu horri aurre egiteko, beharrezkoa da etorkizuneko gastu-partidaren aurrekontu-zuzkidura handitzea (5 0101.601.151.00.02 2022 partida) eta beraz, 2022ko ekitaldirako konpromisu kredituen eranskina aldatzea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 22.artikuluaren ezarritakoak betetzen da, hau da *“Etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarrean dauden konpromisu-kredituen zenbateko metatua ezingo da izan aurrekontuan aipatzen den erakundearen eragiketa arruntengatik baliabideen %25 baino handiagoa, likidatutako azken ekitalditik kenduta (2020), eta 6.3.e) artikuluan eskatutako azterketatik muga txikiagoa ez bada”*

Ogasuneko informazio batzordeak aldeko irizpena eman du eta Udalbatzari aurkeztu dio hurrengo

ERABAKI PROPOSAMENA

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM



Etorkizuneko ekitaldietarako 5.0101.601.151.00.02 2022 partidaren aurrekontu zuzkidura berria onartzea, 37.474,62 euroko gehikuntzarekin.”

5.-2021KBES0023 espedientea. Dirulaguntza

Kontu-hartzaileak esan du hitzarmen batzuk sinatu nahi direla, bai UDArekin eta bai ta ere Euskadiko Sahara entitate pare batekin. Dirulaguntza hauek partida propioa izan behar dute; orain arte beste modu batera sartu dira baina legez, onartzen denean aurrekontua dirulaguntza nominatiboak zehaztuta egon behar dute, izenarekin eta kopuruarekin. Partidak sortu behar izan dira, finantziazioa bazegoen beste partidetan eta orain egin behar dena da aurrekontuetan zegoen “anexo de subvenciones” aldatu hiru partida sartzeko. Koldo Zubillagak esan du kiroletan dirulaguntza dirulaguntza partida orokor batean zegoela eta orain eskatzen bada nominatiboa izatea horrela egingo da, baina orain arte beste modu batera egin izan dugu. Gorka Gabilondok esan du urtero urtero dirulaguntzak jaso izan direla, baina legalki eskatzen dela nominatiboak izatea partida zehatzekin. Kontu-hartzaileak esan du prozedura apur bat luzatu egingo dela argitaratu beharko delako boletinean eta jendaurrean egon behar delako. Alkateak erantsi du datorren urteari begira zuzendu beharko dela horrelakorik berriro ez gertatzeko eta kontu-hartzaileak esan du hitzarmena beti justifikatu egin behar dela. Bozketa egin aurretik Alex Dietmar zinegotzia etorri da eta aho batez ogasun batzordearen honako diktamena onartzen da:

“Kiroletako eta Ongizate sailek honako hitzarmenak sinatzea proposatu dute:


- Lankidetz hitzarmena Unión Deportiva Aretxabaletarekin (UDA)
Diru-laguntza lerroa: UDA elkartearen egitura indartzeko Udalaren eta UDAREN arteko hitzarmena
Onuraduna: Unión Deportiva Aretxabaleta
Helburua: Klubaren egitura profesionalizatzen laguntzea, futbol-kudeatzaile bat eta koordinatzaile bat kontratatuz.
Urteko kostua: 7.000 euro
Finantzaketa: baliabide propioekin egingo da finantzaketa, udal aurrekontuko IV.kapitulua kargura
- Lankidetz hitzarmena Euskadiko Saharako Ordezkaritzarekin
Diru-laguntza lerroa: Garapenerako lankidetz proiektuetarako diru-laguntza
Onuraduna: Euskadiko Saharako Ordezkaritza
Helburua: 2021 Oporrak Bakean programa alternatiboa gauzatzea, Saharako haur eta nerabeei errefuxiatuen kanpalekuko monotoniaz bestelako espazio bat emateko, gerra garaian bakearen kultura sustatzeko jardueren bitartez.
Urteko kostua: 550€
Finantzaketa: baliabide propioekin egingo da finantzaketa, udal aurrekontuko IV.kapitulua kargura
- Lankidetz hitzarmena SEADen (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa) lagunen elkartearekin
Diru-laguntza lerroa: garapenerako lankidetz proiektuetarako diru-laguntza
Onuraduna: Bizkaiko SEADen lagunen elkarte
Helburua: Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpamenduetara laguntza humanitarioa bidaltzen parte hartzea, Piztu Itzaropena kanpainaren bidez.
Urteko Kostua: 800€
Finantzaketa: baliabide propioekin egingo da finantzaketa, udal aurrekontuko IV.kapitulua kargura

Honako partida hauek sortuko dira :

1.0201.481.341.00.02 2021 UDARI dirulaguntza

1.0701.490.230.00.02 2021 Euskadiko Saharak Ordezk.-ri dirulaguntza

1.0701.490.230.00.03 2021 Asoc.amigos y amigos RASD-ri dirulaguntza

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiakotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVm



Diru-laguntza izendun bat onartzea eta, beraz, aldatzea Osoko Bilkuraren eskumena da, eta aurrekontuaren bidez onartzen du. Beraz, aldaketa onartzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15., 17. Eta 18. Artikuluetan adierazitako prozedurari jarraitu beharko zaio.

Ogasuneko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman du eta Udalbatzari aurkeztu dio hurrengo

ERABAKI PROPOSAMENA

- 1.- Diru-laguntza izendunen eranskina aldatzea, adierazitako hiru diru-laguntza sartzeko
- 2.- 21/2003 Foru Arauan adierazitako prozedurari jarraituz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea udal aurrekontuko diru-laguntza izendunen eranskinaren aldatetaren hasierako onarpena. Hasiera batean onartutako aldatetak jendaurrean jartzea 15 egunez.”

6.-2021KKRO0001 espedientea. Kreditu aldaketa espedientearen komunikazioa

Begoña Arenaza kontu-hartzaileak honako komunikazioa azaltzen du:

“KONTU-HARTZAILEAREN JAKINARAZPENA ARETXABALETAKO UDALBATZARI
2021/06/09KO KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEAREN ONARPENARI BURUZKOA.
APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA:


- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki-erakundeen aurrekontuegonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko finantza-tutoretzaren eskumena garatzen duena, 2013/02/12an argitaratu eta indarrean jarri zena. Azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Administrazioaren arrazionalizazio-eta iraunkortasun-neurriak aplikatzearen foru-berezitasunari buruzkoak, aldatu zuen (2014ko azaroaren 20ko GAO). Azken 13/2014 Foru Arau horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, 2016/04/04an emandako epaian, baliogabetu egin zituen 1.4, 2.2, 2.5, 4, 6.2 artikulua eta xedapen gehigarri bakarra.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeei buruzkoa. 27.3 artikulua.
- 9/2020 Dekretu Araua, azaroaren 19koa, Gipuzkoako erakundeei aplikatu dakizkiekeen ezohiko eta presazko finantza-neurriei buruzkoa.

ORAIN ARTE EGINDAKO IZAPIDEAK:

Aretxabaletako Udalak 2021eko ekitaldira luzatu zuen bere aurrekontua, 2021eko aurrekontua 2020/12/31 baino lehen onartu ez zelako.

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2021/02/17an egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zion 2021 ekitaldiko Aurrekontu Orokorrari, eta 2021/03/26an behin betikoa izan zen.

Aurrekontua hasierako defizitarekin onartu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak Aretxabaletarako ezarritako erreferentziako defizita ere gaindituz (-760.887 euro).

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiakotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVm



2021eko otsailaren 10ean, kredituak aldeztu aurretik gehitzeko modalitatean 372.887,67 euroko kredituak aldatzeko espediente bat onartu zen, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatua.

2021eko apirilaren 26an, kredituak gaitzeko modalitatean kredituak aldatzeko espediente bat onartu zen, 2b sektoreko urbanizazioaren abala gauzatzeari buruzkoa (38.438,45 €).

2021eko ekainaren 9an, kreditu gehigarrien modalitatean 85.598,36 euroko kredituak aldatzeko espediente bat onartu zen, hainbat inbertsio finantzatzeko eta aurrekontuan hainbat gastutarako partidak hornitzeko.

Kredituak aldatzeko espedienteak kontabilizatuta, egiaztatu da ez dela aurrekontu defizitaren helburua betetzen, eta zor bizia % 27,88koa dela.

9/2020 Foru Dekretu-Arauek honako hau dio: "Gipuzkoako entitateen zerga-arauek eten egin dira, 2020rako eta 2021erako ezohiko izaerarekin eta ondorio eksklusiboekin". Horrek esan nahi du aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta urte horietan gastu-arauek ez aplikatzea. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak erreferentziazko defizit-mugak ezarri ditu, eta horiek gaindituz gero, Udalak plan ekonomiko-finantzario bat egin eta onartu beharko du. Ekonomia- eta finantza-plan hori epe luzerako kudeaketa- eta plangintza-tresna izango da, baina haren betetze-mailak ez du ekarriko neurri gehigarriak hartzeko betebeharririk.

2020ko aurrekontuaren likidaziotik eratorritako aurrekontu-datuak:

Diruzaintzako gerakina: 3.636.503,24 €.

Aurrezki gordina maila kontsolidatua: 2.087.290,80 €

Aurrezki garbia maila kontsolidatua: 1.245.324,08 €


2021eko Aurrekontuaren Aurrezki Gordina eta Garbia: 1.067.098,29 € eta 232.352,73 €, hurrenez hurren. Adierazle horiek nabarmen jaitsi dira aurreko ekitaldiekin alderatuta.

2021eko aurrekontua 2020ko ekitaldiarekiko % 24ko igoerarekin onartu zen. Aurrezpen garbia murriztu egin da aurreko ekitaldiekin alderatuta, eta, ondorioz, 2021eko ekitaldian proiektatutako inbertsioak finantzatzeko, finantzaketara jo behar izan da epe luzeko mailegu bidez.

Proiektatutako inbertsio-maila handia dela eta, litekeena da 2021ean eta 2022an ekonomia- eta finantza-planak egin behar izatea. Egungo zerga-arauen etendura luzatzen ez bada, egin beharreko ezohiko inbertsioak eta gastuak aztertu beharko dira; izan ere, 2023. eta 2024. ekitaldietan aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak bete beharko lirateke.

Ilido beretik jo zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021/05/28an Kutxabankekin kontratatu beharreko maileguaren arrazoa hartzeko jakinarazpenean (A/21-0162 sarrera-erregistroa).

Bidalitako idazkian 2021eko behin betiko aurrekontuaren defizitari erreparatzen dio, Aldundiak ezarritako erreferentziazko indizea hirukoizten baitu.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM



Horregatik guztiagatik, berriro diot 2021eko aurrekontuko gastuak kontrolatu behar direla, 2021eko eta 2022ko ekitaldietako likidazioan egoerak bere horretan jarraitzen badu, ekonomia eta finantza-planak egin eta betetzeak ekarriko duen defizit-egoera bideratzeko.”

7.-2021IODE0001 espedientea. Errekabarren 10eko eraikinaren kalifikazio juridikoa aldatu

Alkateak esan du gai hau zaharren egoitzako desafektazioa dela. Idazkariak aipatu du eraikin hau Urats-Gainek erabili izan duela. Eraikina erabilera edo zerbitzu publiko batera zuzenduta egon denean eta beste bati saldu edo laga nahi denean kalifikazio juridikoa aldatu egin behar da. Orduan, jabari publikokoa izatetik patrimoniala izatera pasatzen da. Honek, aukera ematen dizu saltzeko, permutatzeko edo lagatzeko. Erabakia gehiengo osoz hartu behar da eta hilabeteko epean jendaurrean egoten da alegazioak aurkezteko. Behin kalifikazio juridikoa aldatuta edo desafektazioa onartuta, eraikuntza hori beste norbaiti eman nahi bazaio, beste erabaki bat hartu behar da, baina beste urrats bat izango litzateke. Alkateak esan du erabakia hartu ondoren, lagapena ejekutatuko dela. Idazkariak gehitu du iraileko ohiko osoko bilkuran Eusko Jaurlaritzari, kasu honetan Osakidetzari, lagatzea onartuko litzatekeela eta hogeit egunez jendaurrean legokeela. Erabaki hau era gehiengo osoz hartu beharko litzateke. Azalpenen ondoren bozketa egiten da eta aho batez onartzen da:

LEHENA: Jarraian aipatuko den ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatu, eta jabari publikoko ondasuna ondare ondasuna bihurtu:

Deskribapena:

Finka zk.- Aretxabaletako 4198a. Liburukia: 588, Liburua: 123, folioa : 158

HIRITARRA.- Gizarte zuzkidurarako eraikina.

Hirugarren adinekoentzako Egoitza eta inguruan dituen lursailak, URATS GAIN EGOITZA izenez ezaguna dena eta Aretxabaletan, Errekabarren kalea 10ean dagoena.


Eraikinak beheko solairua, lehenengoa eta bigarrena ditu. Lehenengo solairuan, taberna, liburutegia, bideo gela, ile apaindegia, galeria egonleku bezala erabiltzen dena, jubilatuentzako bulegoa zuzendaritza bulegoa, pasilloak, zaharren egoitzarako sarrera, tabernarako sarrera, egoiliarrentzako jantokia, sukaldea, berokuntza-galdaren gela, eskailerak eta igogailua daude. Solairuaren azalera eraikia seihun eta hogeita hiru metro laurogeita hamabi dezimetro karratukoa da, eta azalera erabilgarria bostehun eta berrogeita bi metro eta berrogeita hamalau dezimetro karratukoa.

Lehenengo solairuan garbitokia, plantxa, langileentzako gelak, erizaindegia, gela bakunak komunarekin, egongela, biltegia, komun geriatrikoa eta guztientzako komunak, eskailera keta igogailua daude.

Solairuaren azalera eraikia lauhun eta berrogeita bederatzita metro eta hogeita zortzi dezimetro karratu ditu eta azalera erabilgarria hirurehun eta laurogeita hamar metro eta hirurogei eta zazpi dezimetro karratukoa.

Bigarren solairuan, gela bikoitzak komunarekin, gela bakunak komunarekin, egongela, komun geriatrikoa eta guztientzako komunak, eskailera eta igogailua. Solairuaren azalera eraikia hirurehun eta berrogeita hiru metro eta hogeita hamasei dezimetro karratukoa da eta azalera erabilgarria berrehun eta laurogeita hemezortzi metro eta berrogeita hamar dezimetro karratukoa.

Eraikinak oinean duen okupazio azalera seihun eta hogeita hiru metro laurogeita hamabi dezimetro karratukoa da; bere azalera eraikia mila lauhun eta hamasei metro berrogeita hamasei dezimetro karratukoa da eta azalera erabilgarria mila berrehun eta hogeita hamaika metro hirurogeita bat dezimetro karratukoa.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiakotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVm



Eraikinak alde guztietatik, kokatua dagoeneko finkarena den lursailarekin egiten du muga.

Finkak, eraikina eta bere lurak barne, guztira mila lauhun eta hirurogeita bost metro karratu neurtzen du eta bere mugak ondorengoak dira: iparraldean, banandua izan zeneko jatorrizko finkaren gainontzekoa, Uratz Auzoa Kooperatibaren jabetzakoa dena; hegoaldean Agustindar Amen komentuaren jabetza; ekialdean banandua izan zeneko jatorrizko finkaren gainontzekoa, Uratz Auzoa Kooperatibaren jabetzakoa dena eta gaur egun Errekabarren kalea dena eta ipar-mendebaldean Deba ibaia.


BIGARRENA: Hilabetez jendaurrean jarri iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

HIRUGARRENA: Hilabeteke epean alegaziorik aurkezten ez bada behin behineko erabaki hau behin betikoa bihurtuko da.”

8.-2021IBES0006 espedientea. Giza baliabideak arrazionalizatzeko plan estrategikoa

Alkateak esan du Udalhitz hitzarmenean erretiroa hartzerakoan pizgarri batzuk aplikatzea aurreikusten dela; zenbat eta lehenago hartu erretiroa, orduan eta handiagoak dira eta azken urteetan aplikatu izan ditugu; baina legalki, segurtasun bat izateko plan bat egitea eskatzen da, honi guztiari babesa emateko. Zalantzak daude norbaitek erreklamatu gero itzularaziko liratekeen kobratutako kopuruak eta horrexegatik plan hau aurkezteko konpromisoa hartu zen. Kontu-hartzailearen eta idazkariaren txostenak kontuan hartuta, ikusten da beste gabezia batzuk daudela eta onartutako azken legearen aldaketak erremientak eta aukerak ematen ditu, eta baita obligazioak ezarri ere egitea eta langile finkoak ezartzeko, baina orain arte ez da aukerarik izan araudiak ez zuelako uzten plazak ateratzea. Urte bukaerarako plan hori zehazteko konpromisoa hartzen da. Orain erretiroaren pizgarria jorratzen da eta hurrengo urtean badakigu erretiroa hartzeko asmoa duten langileak zein diren eta aurrekontua egiterakoan kontuan hartu behar da, baina begiratu beharko da zelan finkatu plantila. Joan zen astean atera zen legea, ostegunean, eta udalean anabasa sortzen ari da. Zurrumuruak entzunda, egonezin bat sortzen da eta esan diet irailetik aurrera helduko zaiola gaiari, plan bat egingo dela eta denboraz jakinean egongo direla.

Ion Albizuk erantzun dio alkateak esan duen bezala momentu batean eskatu daitekeela dirua bueltatzea, baina bere ustez fiskalki ere penalizatu egiten diela udalak plan bat ez edukitzeak. Beste udaletan sortu da halako arazoren bat ogasunarekin; Bergararik hori esan dute. Honek, segurtasun juridiko gehiago ematen du eta hori ondo dago. Alkateak esan duen moduan, beste arazo bat dugu aspalditik; behin behinean dauden pertsonak, eta ez hori bakarrik: egoera irregularrean daudenak. Pasa den asteko dekretuak hori erregularizatzeko modu posible bat jasotzen du, bere ustez beharrezkoa dena, nahiz eta ulertzen den ere egoera horretan dauden zenbait langileren ezinegona, baina hau administrazio publiko bat da eta lanpostuak teoriarik behin betikoak diren lanpostuak eskuratzeko pausoak pasatu behar dira, beste batzuk moduan. Beste alde batetik ere, badaude pertsonal inguruan beste lan batzuk egin beharrekoak. Alde batetik arlo batzuetako gabeziak, bat Begoña kontu-hartzailearen departamentua. Seguraski beste departamentuetan ere ikusten dugu beharrezkoak direla. Honelako planteamendu eta hausnarketa batean sartuta, lanpostuen birdefinizioa beharrezkoa da, badaudelako hainbat elementu ondo aztertu eta begiratu behar direnak; bat, dedikazioarena. Gaia konplexua dela ulertzen du, baina dena zintzoki planteatzen bada horri ere heldu behar zaio. Beste aldetik, baliabide gehiago behar izanez gero, gure udalak beste udal askokin alderatuta lehen kapituluaren oso portzentaje baxua du, %21a, eta inguruko udal gehienek eta gure tamainakoek %30etik gora dute. Honen inguruan planteamendu orokorra behar da eta hor sartzen da erretiroen gaia, erronka potoloak ekarriko dituenak lanpostu batzuk ordezkatzeko eta trantsizioa egiteko ondo planifikatu behar den gauza delako. Hor dugu zerbitziburuaren jubilazioa eta ondo planifikatu behar da informazioa galdu ez dadin. Beste aldetik dugu behin behineko langileak, zein lanpostu atera behar diren eta zein ez eta horrekin zer pasatuko den. Hor konplexutasun batzuk ditugu, Eskoriatzako eta Aretxabaletako Udalok konpartitzen ditugun langile batzuk ditugulako. Hori guztia modu globalean jorratzea eskatzen du. Jarraian, gehitzen du ez dakiela ogasun batzordea ote den lekua edo pertsonal batzordea sortu behar ote den, baina bere ustez komenigarriagoa dela pertsonal batzordea sortzea. Planteamendu edo eredu desberdinak sortuko dira eta hori da lekua mahai gainean jartzeko eta zinegotzien artean eztabaidatzeko, ahal den heinean adostasunera ailegatzeko, hau ez delako bi edo lau

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiatzotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM



urteko kontua, baizik eta epe luzerako eta inportantea da ahalik eta adostasun handiena lortzea bi alderdien artean. Argi dago pertsonal gaietan sartzen garenean ez direla gai errazak eta hor denok batera egotea eta ados egotea oso inportantea da. Normalean horrelako gaiak, esaterako dedikazioarena, legealdiz legealdi pasatzen den patata bero bat da eta horri ere heldu egin behar zaio; baina bere osotasunean, kontuan hartuz lanpostuen balorazioa etab. Horrela ez bada egiten kaos bat sortuko da hurrengo urteetan eta bere ustez inportantea da modu horretan heltzea. Azkenik, alde bozkatuko duela erantsi du.

Alkateak esan du bere egunean ogasun eta pertsonal batzordea izendatu zela; segun zer tratatu behar den egongo da egon behar dena. Bestetik, gai hauek urteetan eragina izango dute, ez da legealdi honetan izango dena edo hurrengoan, eta komeni da adostasun bat edukitzea. Estructura bat dago eta marjen gutxi dago ikutzeko.; orduan, beharrezkoa da adostasun bat aurrera ateratzeko plana eta egia da konplexua dela, baina helduko zaio. Interinoen moduan, batzuei egonezina sortzen dien bezala, beste batzuei agrabio konparatibo bezala egonezinak edo gaizki ikusiak sor daitezke. Hau adostasun zabalenarekin hartu behar den gai bat da eta orain hartzen dien erabakiak datozenak jasan beharko dituzte. Ahal den eta zuzenena egiten ahaleginduko dela esan ostean, jakinarazi du irailtik aurrera gai honi ekingo zaiola eta ikusi egin beharko dela kontsultore bat edo enpresa bat hartzea; zinegotziek eginez gero, agian ez da sekulan aurrera aterako, baina aztertuko dira aukera desberdinak.

Ion Albizuk aipatu du onartuko den plan hau beste udal gehienek onartu duten planaren kalko bat dela. Diferentzi bat egoten da normalean udalen artean. Batzuetan bakarrik funtzionarioei aplikatzen zaien plan bat da; beste batzuetan funtzionario eta fijoiei eta gure kasuan jasotzen da udal langileei aplikatzen zaiela eta bere alderdiarentzat inportantea da udal langile guztiei aplikatze, behin behinean daudenei ere. Hori, elementu inportantea da. Beste alde batetik, inportantea da gardentasuna eta mahai gainean jartzea tokatzen den momentuan. Alkateak enpresa bat kontratatzea aipatu du eta hori beharrezkoa izango dela uste du. Hor badaude komentura doazen zerbitzu batzuk edo beste zerbitzuak, bere garaian eztabaida bat izan zen kale garbiketa zerbitzuaren inguruan, eta horren gainean bakoitzaren intentzioak mahai gainean jartzea inportantea da. Horrekin ez du esan nahi gai guztietan adostasunera iritsiko direnik, hor tartea dagoelako bakoitzak garatzeko politika desberdinak; baina inportantea da asmoak mahai gainean jartzea zintzotasunez eta gardentasunez.

Alkateak erantzun dio zerbitzuak aipatu dituen kontuan hartu behar dela lehenengo kapitulua %20-21ekoa bada, %30era igarotzeko nonbaitetik jaitsi egin beharko dela eta Ion Albizuk gehitu du lehenengo kapitulua %20koa dela, baina 2. Kapitulua %50ekoa eta hori normalean beste herrietan baino altuagoa da. Herri honek subkontratatze joera du. Alkateak dio irailtik aurrera gai hau hartuko duela eta ikusiko dela zein hartu genezakeen laguntzeko. Ion Albizuk esan du beste herrietan lanean dabiltzala gai honekin eta hortik ikas genezakeela. Jarraian bozketa egiten da eta aho batez erabaki da giza baliabideak arrazionalizatzeko honako plan estrategikoa onartzea.


Aretxabaletako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plan Estrategikoa

ATARIKOA

Giza baliabideei buruz udal honetan dauden datuen arabera, udal plantillaren batezbesteko adina 48,8 urtekoa da. Bestalde, datozen 15 urteetan 25 pertsonak erretiroa hartuko dutela aurreikusten da, alegia, udal plantillaren % 56,82ek. Horren haritik ondorioztatzen da neurriak hartu beharra dagoela belaunaldi-errelebo egokia egiteko.

Beraz, nahitaezkoa da neurri gehigarriak hartzea, belaunaldi-aldaketa leuntzeko, hari aurrea hartzeko eta progresiboki eta ahalik eta modu arrazionalenean egiteko, eta erretiroa hartzeko adin arruntera gerturatzen ari diren langileek pilotutako ezaguera transmititzeko.

Aretxabaletako Udalak ongi ezagutzen du aurreko paragrafoan azaldutako egoera, eta badaki horrek eragina izango duela plantilla behar bezala ordeztarakoan. Beraz, Udalarri komenigarria iruditzen zaio

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM



erretiro aurreratua sustatzeko sistema bat jartzea, plantilla gaztetu ahal izateko, eta hori interes publikoko helburutzat hartuko da, arrazoitutakoaren arabera.

Hain zuzen ere, tokiko langileek adina dela-eta jasaten duten gaitasun psikofisikoen galera progresiboa arintzeko hartu nahi dira neurri horiek eta, aldi berean, neurrien inplementazioak. I. kapituluko gastuen partidak jaistea ekarriko du, langileek antzinasunaren kontzeptuagatik jasotzen dituzten ordainsariei dagokienez.

Helburu nagusi hori kontuan hartuta, Giza Baliabideen Plan Estrategiko hau aurkezten da. Bere helburu espezifikoak langile publikoen erretiro mailakaturik da. Horretarako, laguntza neurri gisa, honako hau emango zaie:

Kalte-ordainak edo diruzko konpentsazioak, borondatezko erretiro aurreratua hartzen duten enplegatu publikoek jasaten duten kalte ekonomikoa arintzeko, erretiro-pentsioak murriztu egiten baitzaizkie lege ezarritako koefiziente murriztaileak aplikatzeagatik. Kasu horietan, langile horientzat desberdintasun egoera bat sortzen da, alde aurretik borondatez erretiratzen ez direnekin alderatuta (azken horiek euren erretiro-pentsioetan murrizketarik izango ez dutelako). Eta desberdintasun egoera bera sortzen da, nahitaezko erretiro adinera ez iritsi arren, borondatezko erretiroa hartzen dutenekin alderatuta, horiek beren pensioetan kalte ekonomikoki hori jasaten ez dutenean; adibidez, enplegatu publikoen kolektibo batzuentzat edo aukera hori arauz ezarrita dutenentzat erretiro adin arrunta borondatez aurreratzen denean, haien erretiro-pentsioetan ondorio ekonomikorik eragin gabe.

Diruzko konpentsazio hori edo pensioan jasango duten kalte ekonomikoari aurre egiteko kalte-ordain hori, beraz, pizgarri gisa ezartzen da, egoera hori pairatzen duten langileek aukera izan dezaten aipatutako borondatezko erretiro aurreratua hartzeko.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Akordio honek funtzio publikoa eraberritzeko neurri buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen Hogeita batgarren Xedapen Gehigarrian du bere zuzenbideko oinarria. Honela dio testuak hitzez hitz:


«Las Comunidades Autónomas y las Corporaciones Locales, de acuerdo con su capacidad de autoorganización, podrán adoptar, además de Planes de Empleo, otros sistemas de racionalización de los recursos humanos, mediante programas adaptados a sus especificidades, que podrán incluir todas o algunas de las medidas mencionadas en los apartados 2 y 3 del artículo 18 de la presente Ley, así como incentivos a la excedencia voluntaria y a la jubilación anticipada.»

Era berean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22. artikulua honako hau dio:

«1. Euskal Herri Administrazioek, beren buruak antolatzeko duten gaitasunekin bat etorriz eta langileen ordezkariekin bitartekotza-lanak eginez, haien berezitasunetara egokituriko eta funtzionarioei zein lan kontratadun langileei loturiko giza baliabideak arrazionalizatzeko programak ezarri ahal izango dituzte. Programa horiek, alor bakoitzerako giza baliabideak behar bezala erabiltzeko jarduerak jasoko dituzte, aurrekontuen muga barruan eta gobernu-entitateek ezartzen dituzten langileen politiken gidalerroak betez.

2. Aplikatu beharreko araudi orokorrean ezartzen diren neurri guztiak edo batzuk enplegu planetara gehitu ahal izango dituzte, baita borondatezko eszedentzia eta behar baino lehenagoko erretiroa sustatzekoak edo zerbitzu aktiboari uko egiteko edo horretan behin betiko baja hartzekoak ere.

3. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek lege honetan ezarritakoa eta Euskal Herri Administrazio bakoitzak ebazten duen araudia bete beharko dute. (...).»

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM



Ildo horretan, Euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/ 2004 Dekretuaren 41. artikuluan honako hau jasotzen da:

«1. Euskal herri administrazioek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzen duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira. Hori guztia aurrekontuen muga barne egin beharko da, gobernu-organismoek langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera.

2. Zerbitzu publikoa eskaintzeko asmoz ezinbestekoak eta aproposak diren langileez osaturiko antolakuntza administratibo egokia lortzeko xedez, arrazionalizatzeko programek euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Baliteke jarduketok eragina edo ondorioak izatea, besteak beste, honako gaitan: langileen plantillan tamaina eta beharizanen plangintza, lanpostuen sailkapena ordainsarrietan dagozkien ondorioak aintzat harturik, lanpostuen hautaketa baita betetzea ere, langileen sustapena eta igoera, eta prestakuntza.»

Eta 42. artikuluan hau ezartzen du: «Giza-baliabideak arrazionalizatzeko programek euren baitan jaso ditzakete jarraian aipatutako neurri hauetako batzuk edo horiek guztiak: (...) i) Borondatezko lan-utzialdia, aurreraturiko erretiroa, jarduneko zerbitzua uztea edo jarduneko zerbitzuan behin betiko baja hartzea sustatzeko pizgarriak.»

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programak egiteko prozedurari dagokionez, Euskal Toki-Administrazioetako langile funtzionarioen lanpostuak hornitzeko Araudia onartu zuen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 43. artikulua honako hau exijitzen du:

«(...) Horri erantsiko zaio justifikaziozko espedientea non honakoak jasoko baitira: hartutako neurrien zergati objektiboak, lortu nahi den helburua, ondorio ekonomikoari buruzko txostena, aplikatu beharreko neurri zehatzak eta arrazionalizatzeko programaren eraginpeko alorrak, hau da, antolakuntza, denbora eta langileen gaiei dagozkienak.

3. Aurretik aipatutako txostenak lortu ondoren, langileen ordezkariekin negoziatuko da.

4. Funtzio publikoaren alorrean eskuduntzak dituen sailak onartuko ditu programok, aldez aurretik ogasun alorrean eskuduntza duen sailak aldeko txostena eman eta gero. Sail bati baino ez badiote eragiten, sail horrek onartuko ditu, lehenago aipatutako sailek aldez aurretiko aldeko txostena eman eta gero. (...)»


30/1984 Legearen 18.2 artikulua Enplegu Planek justifikaziozko txostena izango dutela aurreikusten du. Txosten horrek dagozkion denbora-erreferentziak jasoko ditu.

Horren ildotik, Aretxabaletako Udalarri dagokionez, 2009ko urtarrilaren 19ko osoko bilkurak hartutako erabakiaren arabera, Euskadiko herri-erakundeetako funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioarekin bat egitea onartu zen (aurrerantzean, Udalhitz). Udalhitzek 95. eta 96. artikuluetan honako asistentzia hobekuntzak jasotzen ditu:

«95. artikulua. Adinagatiko borondatezko erretiroa.

1. Giza baliabideak arrazionalizatzeko esparruan eta horren helburuarekin, adinagatiko borondatezko erretiroa hartzeko prima berezia ezartzen da Erakundeko pertsonalarentzat, ondoko artikuluan ezartzen diren kopuruekin, beti ere baldintza hauek betez gero:

a) Eskaera adinagatiko borondatezko erretirorako adina bete baino gutxienez hiru hilabete lehenago egitea.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiatzotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM



- b) Aldez aurretiko tramitearen erantzuna jaso eta gehienez ere hilabeteko epean indarrean jartzea eskubide hori.
2. Dena dela, adinagatiko borondatezko erretiroa hartzeko adina heltzean jarriko dira indarrean eskubide ekonomikoak.
3. Kapitulu hau betetze aldera, eragina izango duen pertsonaren urteko ordainsari finakoaren 1/14rena izango da hilean jaso beharko duena.
4. Hileko kopurua zehazteko helburuarekin, lehenengo atalean zehaztutako baldintzak betetzen ez dituen pertsonalari nahitaezko erretiroa heltzeko urte bat gutxiago geratzen zaiola bezala jokatu da, ez bada aldez aurretik egin beharreko tramitea egin ez arren adinagatik erretiroa hartzeko ahalmena duen.
5. Artikulu honetan zehaztutakoa indarrean jartzeko, IZABek etorkizunean egin daitekeenari buruzko proposamenak aurkeztuko ditu eta horien azterketa eta ebaluazioa egingo du.

96.artikulua. Erretiro aurreratuarentzako primak

Primaren kopurua eskala hau jarraitu kalkulatu da, beti ere urteko ordainsari gordina erreferentzia bezala hartuta, eta urteko ordainsari hori hilabeteko hainbanatu eta gero.


<u>Adina</u>	<u>Hilekoen kopurua</u>
60tik 61 urtera	21
61etik 62 urtera	17
62tik 63ra	12
63tik 64ra	9
64tik 65era	6

Aurreko hileko soldata horiek derrigorrezko erretiroari dagozkionak dira 65 urte betetzean. Erretiroa eskatu duen langilearen derrigorrezko erretiro adina gehiago bada, hileko kopuru horiek adin eta epe berriei egokituko zaizkie.

Horri dagokionez, kontuan izan behar da Udalhitz onartzeko unean erretirorako adin arrunta 65 urtekoa zela. Hala ere, esan beharra dago 5/2013 Errege Lege Dekretuak, langile zaharren lan-bizitzaren jarraipena errazteko eta zahartze aktiboa sustatzeko neurriei buruzkoak, 6. artikuluan, aldatu egiten dituela 27/2011 Legeak 5. artikuluan erretiro aurreratuari buruz xedatutakoak. Ondorioz, egun erretiro aurreratua har daiteke lege ezarritako gutxieneko adina baino lau urte lehenago, langilearen borondate askeari egotzi ezin zaion kausagatik; eta bi urte lehenago, interesdunaren borondatez. Horri dagokionez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginak (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutakoak) erretiro-adinaren eta kotizazio-urteen pixkanakako aplikazioa ezartzen du zazpigarren xedapen iragankorrean. Beraz, arau-aldaketa hori kontuan hartu beharko da beti.

Plan estrategikoa onartzeko prozedurari dagokionez, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 37.1.g) eta i) ataletan xedatutakoaren arabera, giza baliabideak planifikatzeko tresnak langileen ordezkariekin negoziatuko dira, bakoitzaren eremuan eta administrazio publiko bakoitzaren eskumenei eta kasu bakoitzean lege dagokion irismenari dagokionez.

Honako akordioa, hortaz, langileen ordezkariekin negoziatu da aldez aurretik eta udal zerbitzuak ematean efizientzia maila handitzea eta giza baliabideak optimizatzea ahalbidetuko duen Plan Estrategiko bat egitea da asmoa; horrela, eman beharreko zerbitzuetara egokitu ahal izango da plantilla, gastuari eusteko politika bat kontuan hartuta.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiatzotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM



Helburu horretarako, Aretxabaletako Udalak Planak onar ditzake aurrekontu mugen barruan eta eskatu daitezkeen baldintzak arautuz. Plan horietan neurriak aurreikusiko dira, aurreratutako borondatezko erretiroarengatik pentsioa jasotzeko Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten udal-langileek erretiro aurreratua har dezaten, koefiziente murriztaileen mende beti ere eta akordio honen indarraldian barruan, baita zerbitzu aktiboari uko egiteko edo bertan behin betiko baja emateko pizgarriak ere.

Hori guztia ikusita, honako akordio hau hartzen da:

1. Helburua.

Plan estrategiko honen bidez, Udalhitzien 95 eta 96 artikuluetan xedatutako borondatezko erretiro aurreratuarentzako pizgarrien baldintzak arautzen edo garatzen dira.

Pizgarri horiekin borondatezko erretiro aurreratuak sustatzen dira, pentsioaren oinarri arautzailean aplikatutako koefiziente murriztaileek sortutako galera konpentsatuz. Horrez gain, udal plantilla doitzea eta gaztetzea ere sustatzen da, eta, horrela, plazak eta postuak hutsik geratu ahala, Udalak horiek birformatu eta plaza eta postu berriak sortu ahal izango ditu, behar berriei aurre egiteko egokitutakoak, eta beti legeak ezartzen dituen mugen barruan.

2. Aplikazio-eremua.

Planean jarritako baldintzak betetzen dituzten udal langile eta F.P. Urats-Gaian Zaharren egoitzako langileei aplikatuko zaie plan hau.


3. Nahitaez bete beharreko baldintzak erretiroa hartzeko pizgarriak jasotzeko.

Plan estrategiko honen helburu bezala eta bere baitan, prima bat ezartzen da borondatezko erretiro aurreratua hartzen dutenentzat (ondoren adierazitako kopuruan), betiere ondorengo baldintzak betez gero:

- a) Gutxieneko antzinasuna: erretiro aurreratua hartu ahal izateko zerbitzu aktiboan egon beharra dago Aretxabaletako Udalean edo F.P Urats-Gain Zaharren Egoitzan 5 urteko gutxieneko epean, egitate sortzailea gertatu baino aurre-aurretik, eta 10 urtez gutxienez azken 15 urtea.
- b) Pentsioaren zenbatekoan murrizketa: erretiroaren pentsioaren zenbatekoan murrizketa bat egin behar da, nahitaezko erretiroaren ohiko adinean hartuz gero erretiroa jasoko litzatekeen zenbatekoarekiko, eta ohiko adina baino lehenago erretiroa hartzearen ondorioz.
- c) Ordaindutako beste edozein jarduera garatzeko debekua: langileak uko egin beharko dio ordaindutako beste edozein jarduera egiteari. Horretarako, erretiroa hartu aurretik, aitorpen bat egitea eskatuko zaio, eta, ondoren, hala badagokio, aukera egongo da haren lan-egoerari buruzko txostena eskatzeko Gizarte Segurantzari edo/eta Ogasunari. Informazio hori aurkezteko betebeharra betetzen ez badu, kalte-ordainaren onuradunak itzuli egin beharko dio Udalari kalte-ordain gisa jaso duen zenbateko osoa.

4. Bateriaezintasunak.

Erretiro aurreratua hartzeagatik jasotako kalte-ordaina bateraezina da Gizarte Segurantzak edo dagokion mutualitateak edozein ezgaitasun-modalitate aitortzearekin, baldin eta horren ondorioz langileari Aretxabaletako Udalean edo F.P Urats-Gain Zaharren Egoitzan behin betiko baja eman bazaio, erretiro aurreratua hartu aurretik. Zirkunstantzia hori gertatzen denean, jasotako prestazio osoa itzuli beharko du onuradunak.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiatzotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM



Era berean, kalte-ordaina bateraezina da erretiro adin arrunta aurreratzearekin, baldin eta horrek pentsioa edo beste edozein erretiro modalitate kaltetzen ez badu.

5. Indarrean sartzea eta iraunaldia.

Plan Estrategikoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta horrela jarraituko du hura aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte. Prozedura egokiaren bidez erabaki ditzaketen aldaketak alde batera utzi gabe.

6. Kalkulatzeko arauak.

Kalte-ordainaren zenbateko zehatza finkatzeko, Udalhitz 2008-2010 akordioaren 95. eta 96. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan jarritakoa jarraituko da, baina aurrez artikuluko horietan aurreikusitakoa une bakoitzean nahitaezko erretiroa hartzeko adin arruntera egokituta (Gizarte Segurantzaren arloko oinarriko legediaren arabera).

Primaren kopurua eskala hau jarraituta kalkulatu da, betiere urteko ordainsari gordinen erreferentzia bezala hartuta, eta urteko ordainsari hori hilabeteko hori hainbanatu eta gero:

<u>Adina</u>	<u>Hilabete kopurua</u>
60tik 61 urtera	21 hilabete
61etik 62 urtera	17 hilabete
62tik 63 urtera	12 hilabete
63tik 64 urtera	9 hilabete
64tik 65 urtera	6 hilabete

Aurreko hileko soldata horiek derrigorrezko erretiroari dagozkionak dira 65 urte betetzean. Erretiroa eskatu duen langilearen derrigorrezko erretiro adina gehiago bada, hileko kopuru horiek adin eta epe berriei egokituko zaizkie.

7. Aurrekontua izatea.

Urte bakoitzeko aurrekontu orokorrak, hasiera batean edo dagozkion aurrekontu-aldaketen bidez, plana gauzatzetik eratorritako betebeharrak betetzera bideratutako aurrekontu-zuzkidurak jasoko ditu, plan honen indarraldiko aurrekontu ekitaldietan. Aurrekontu-zuzkidura horiek dagozkion aurrekontu-partidetan gauzatuko dira.


I. kapituluko aurrekontu zuzkiduren soberakinak, behar izanez gero, Planean jasotako neurriak finantzatzeko erabili ahalko dira, horretarako jarritako partidara kredituak transferituz.

8. Planaren mugak eta plantilla eta Lanpostuen Zerrendaren doikuntzak.

Edozein kasutan, planari lotutako kalte-ordainpeko jardueren kopuru totala bat etorriko da aurrekontu-ekitaldi bakoitzean plana gauzatzeko jarritako aurrekontu-baliabide aplikagarrieekin.

Erretiro aurreratutako eragindako pertsonal plaza eta lanpostuei esleitutako eginkizunak aztergai izango dira, hala badagokio, Udalak planteaturiko premia eta erronkei aurre egiteko baliabideak berregituratzeko. Horrek ekar dezake udal plantillako lanpostuen amortizazioa, eraldaketa edo aldakuntza.

Kalte-ordain horiek akordio honetako xedapenen arabera emango dira. Zinpeko aitortpena edo eskatutako txostenak aurkezteko obligazioa betetzen ez bada, kalte-ordainaren onuradunak itzuli egin beharko dio Udalari jasotako zenbateko osoa.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVm



Modu berean, interesdunak ezintasun iraunkor absolutua duela adierazten badu, eta ezintasun hori erretiro aurreratua hartu baino lehenagokoa bada edo ezintasun iraunkor osoa aitortzeagatikokoa bajaren data bera edo lehenagokoa bada, kalte-ordain gisa aitortu zaion zenbatekoa itzuli beharko dio Aretxabaletako Udalari.

9. Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Giza baliabideak arrazionalizatzeko plan honetan aurreikusitako neurriez baliatu ahal izateko eskaera adinagatikokoa borondatezko erretirorako adina bete baino gutxienez hiru hilabete lehenago egin beharko da.

Indemnitzatutako erretiro aurreratua hartzeko eskaerarekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du interesdunak:

- a) Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatearen agiria, non erretiroa hartzeko adina zehaztuko den.
- b) Erretiro pentsioaren zenbatekoa murriztu egingo zaiola egiaztatzen duen agiria, nahitaezko erretirorako adin arruntean erretiratuz gero jasoko lukeen pentsioaren zenbatekoarekin alderatuta, eta, erretiroa hartzeko adin arrunta baino lehenago erretiroa hartzearen ondorioz.
- c) Erantzukizunpeko adierazpena, ordaindutako beste edozein jarduera egiteari uko eginez.

Modu berean, Udalak eskaera izapidetzeko bidezkoztat jo dezakeen beste edozein agiri erreklamatu ahal izango du, era arrazoituan.

10. Plan Estrategiko honen baitan kalte-ordain gisa jasotako zenbatekoen tratamendu fiskala.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko Gipuzkoako 3/2014 Foru Arauaren 9. artikulua xedatzen duenaren arabera, salbuetsita egongo dira zerga ordaintzetik administrazio publikoetako giza baliabideen plan estrategikoetan arautu eta aitortutako zenbatekoak, betiere Langileen Estatutuko 51. artikuluan ezarritako arrazoiak bat oinarritzat hartuta, plan horiek parekatuta baitaude kaleratze kolektiboekin eta kaleratze nahiz kargugabetze objektiboekin.


Zerga ordaintzetik salbuetsitako kalte-ordainaren zenbatekoak ezin izango du 180.000 eurotik gorakoa izan.

9.-2021IJA10001 espedientea. 2022ko herriko jai eguna proposatu

Alkateak esan du datorren urteko jai eguna ,San Roke eguna, abuztuak 16, izatea proposatzen duela. Ondoren, bozketa egiten da eta aho batez erabaki da Eusko Jaurilaritzari proposatzea 2022ko abuztuak 16 Aretxabaletako jai eguna izendatzea.

10.-2019IBES0013 espedientea. Debagoieneko Mankomunitateko gizarte mapa garatzeko batzordea. Udal ordezkariaren izendapena

Alkateak adierazi du aurreko legealdian dekretu-kartera dela eta, ongizate arloan nola garatu aztertzeke lana egin zela mankomunitatearen bitartez. Lehenengo lortu zen gure gunea mankomunitatea izatea. Hasieran bi zatitan hartzen ziren: Arrasatetik gora eta Bergara ingurua; baina Foru Aldundiak hori aldatzea lortu zen eta mankomunitate osoa kontsideratzea. Azkenean, mankomunitatea batzuetan zabor zerbitzua eskaintzen dute, beste herri batzuk garapen zerbitzuan daude, baina gurean dauden herriak denean egonda, nahiko ondo ordezkaturik daude mankomunitatean. Enpresa bat kontratatatu zen, lan bat egin zen, baina legealdi bukaera etorri zen eta ez zen momentua erabakiak hartzeko. Orain gaiari berriro heltzea erabaki da eta batzorde bat sortu dute. Proposatzen dena da ongizateko zinegotzia Karmele Udalaren ordezkari izendatzea eta alkatea ordezkaria.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM



Ion Albizuk esan du gai hau legealdiaren hasieratik datorrela. Mankomunitatearen inguruko ordezkapen sisteman EH Bilduren planteamendua izan zen beste modu batean ordezkatzeari. Orokorrean Aretxabaletak bi ordezkari ditu, EAJkoak, eta hori ez da bidezkoa. Beste alde batetik, ez da kuestionatzen Karmelean joan behar denik, azkenean bera da ongizateko arduraduna eta pertsona egokia da horretarako, baina gaur egun mankomunitatean ordezkariarik ez dutela esan du eta horregatik abstenitu egingo direla aipatu du. Jarraian eskatzen du mankomunitatean lantzen diren gaiak maiztasun gehiagorekin hemengo batzordeetan tratatzea, ongizatean tratatzen dira baina badira beste gai batzuk edo juntan erabakitzen direnak gero ez direnak traslatatzen dagokien batzordeetara. Azkenean, EAJko zinegotzietan zuzenduta, esaten du beraiek direla guztien ordezkariak eta uste duela informazio gehiago jaso behar dutela informazio gutxi edo ia ezer ez dutelako jasotzen. Jarraian, gehitzen du ez dakiela hirigintza batzordea den egokiena, bereziki hondakinen inguruko gaiak direnean, eta gero ongizatekoak edo besteak dagokien batzordeetan landu daitezke. Eskatzen dena da hor tratatzen diren gaiak udaleko zinegotziak denen ordezkariak diren heinean udal honetan jasotzea zeren bere alderdiaren ordezkariak ez dira bere herrikoak baizik eta udal honek izendatutakoak.

Alkateak esan du ez duela arazorik ikusten ; jasotzen den dokumentazioa kontsultatzeko moduak jarriko da eta zeozer interesatea ikusten bada batzordean tratatu daiteke. Ion Albizuk uste du interesgarria dela, bereziki hirigintzako gaiak direnean batzordean tratatzea eta azalpenak ematea, dokumentazioa leku batean uztea baino. Koldo Zubillagak aipatu du kirol batzordean horrela jokatzeko dela. Gorka Gabilondok erantsi du kirol batzordean deskargua egiten dela eta eztabaidatzen dela. Ion Albizuk erantsi du beste hainbat gai hor geratzen direla, ez dagoela komunikaziorik.

Alkateak aipatu du ongizatean orain batzordea sortuko dela, baina energia mailan gertatzen den bezala, ez dauka eskumenik foru bat eztabaidatzeko eskumenik ez duelako, ezta ongizatean ere; udalak ematen ez badio, ez du eskumenik. Mankomunitatean %80a edo gehiago zaborren bilketa da eta garapen agentzian gai desberdin batzuk egon daitezke. Ion Albizuk esan du hemengo batzordeen moduan dela, hemengo batzordeak informatiboak dira eta eskatzen dena da han tratatzen dena traslatatzea. Energia mailan eztabaidatzen dena ez dauka zertan mankomunitateko lehendakariari edo beste alkate bati eskatu beharrik. Jarraian bozketa egiten da eta aho batez erabaki da Debagoieneko Mankomunitateko gizarte mapa garatzeko batzorderako Aretxabaletako Udalaren ordezkaria karmelean Uribarri zinegotzia izendatzea eta Unai Elkoro Oianguren alkatea bere ordezkaria.


11.-Galdera-ekariak

Ez da egon ez galdera ez eskaririk.

Eta besterik ezean, aipatutako eguneko arratsaldeko zazpirak eta hamar direnean bilera amaitu egin da, eta nik, idazkariak, bertan gertatutakoa egiaztatzen dut.

O.E.

IDAZKARIA

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABYND4.QDVM